

XVIIgarren MENDEKO IOANNES HARANEDER FRAIDEA

Beti bada zer ikas euskal literaturan. Aldi huntan nahi dautzuet laburki salatu badirela bi Haraneder, eta ez bat bakarrik orai arte uste ginuen bezala.

Goazen ikus laburzki nola ikasi dugun berri hori.

Euskal eliza-liburu maizenik agertu dena da **Exercicio izpirituala**. Vinson-ek bere Bibliografian laurogoi edizione aipatzen dizkigu: zaharrena 1716-ekoa, berriena 1888-koa. Egia erran, Vinson-en lanaz geroztik bertze edizione zenbait agertu dira, hala nola 1910-ekoa, 1919-koa, 1922-koa, eta 1937-koa. Orotarat 85 edizione bederen.

Bainan badira XVII garren mendekoak ere, Vinson-ek bere bidean aurkitu ez zituenak.

Berriki bizi naizen Seminarioko euskal liburutegian eskuetarar lerratu zait liburu zahar itsusi funditu bat: titulurik ez, asko orri eskas.

Barnea doi-doia miatu orduko ohartu naiz **Exercicio izpirituala** zela.

To! huna besta aldakorren zerrenda! 1690-etik hasten da, eta 1717-an bururatzten. Beraz Vinson-ek aipatu edizione zaharrena baino zaharragoa dut hau.

Ba bainan noizkoa?

Hain xuxen, gelditzen den lehen orri-aldean, bada gutun bat, liburu-eskaintza bat, zorigaitzez ez osoa, eta bertzalde ez ulert-errexka, bazterretako hitz edo letra batzu falta izanez.

Beharrik garbiki emana baita lehen agurra. Hauxe irakur ditake:

TARBeko ENE

Jaun Ipizpicuari

Erregueren estatu privatu

Conseilluan Conseillari,

eta Artusko abadeari

JOANNES HARANEDER

Fraideac baquea eta

Ossasuna

Pentsatzen duzuen bezala, artxibo eta liburu askotara jo dut argiketa: laguntzale jarri zaizkit Mangin, Goyheneche eta Romatet jaun ixtoriozaleak.

Eta huna zertaratu gaituzten gure ikerpenek.

Arthous-eko abadetan ez dira izan Tarbeko bi apezpiku baizik, biak izen-deitura berekilakoak, biak euskaldunak: Salvat Diharce, osaba-ilobak.

Zaharrena, Axular apeztu zuena, 1601-ean hil zen.

Gazteena 1648-an.

Joannes Haraneder fraideak lehenago behar izan du egin bere gutuna.

XVIII garren mendean orok badakigu izan dela Donibaneko apez bat loannes de Haraneder deitua. Nehun ez du bere burua fraidetzat eman. 1740-an bururatu zuen Testament berriaren bere itzulpena, eta 1749-an **Philotea** ager-arazi.

Oixtiko fraide hura izan balitz, ehun urteak ausarki gaindituak zituzken. Ezen fraide horrek, berak dion bezala, bere liburuaren "birberritzeko" mementoan, frango xahartua iduri du. Dio dela "flako eta nigarti, ecin balia oinez, escuez eta berze partez, norbaitec helduric baizen", ez duelarik

HARANEDER FRAIDEA

“borondate bezanbat botere”.

Zer bilakatuko zen handik ehun urteren buruan?

Bixtan da beraz bi Haraneder konda ditzakegula gure literaturan.

Baina zer pentsa oixtion aipatu dugun besta aldakorren xerrendaz (1690-1717)?

Eskuetan dugun edizioea XVII garren mendeko azken urtetan jalgi dela, lehenagoko aintzin-solasarekin, argitaratzaleak besta aldakorren saila bere denborakotuz. Gure ustez, liburu horren hirugarren edo berdin laugarren ager-aldikoa dugu hainbertze lan eman daukun **Exercicio Izpiritual** zaharra.

Ez dakigu halere ez noizkoak ziren edizioe horiek, ez eta zoin ordenakoa Haraneder fraidea.

Gauden beha, ea nonbaitik argi zerbait aterako den.

P. LAFITTE

1974-11-29